2008	E	Bulgaria	4	OOC	Metandienone
2008	E	Bulgaria	4	OOC	Metandienone
2008	G	Bulgaria		OOC	Metandienone
2008	G	Bulgaria	4	OOC	Metandienone
2008	E	Bulgaria	4	OOC	Metandienone
2008	G	Bulgaria	4	OOC	Metandienone
2008	G	Bulgaria		OOC	Metandienone
2008	G	Bulgaria	4	OOC	Metandienone
2008	G	Bulgaria		OOC	Metandienone
2008	G	Txina	4	IC	Metandienone
2008	G	Cuba	4	IC	Metandienone
2008	E	Cuba	4	IC	Metandienone
2008	E	Errepublika			
2008	E	Dominikarra	4	IC	Stanozolol, Hydroxystanozolol
2008	G	Errepublika			
2008	G	Dominikarra	4	IC	Furosemide Methyltrienolone,
2008	G	Grezia	2	OOC	Buprenorphine

2008	E	Grezia	2	OOC	Methyltrienolone, Buprenorphine
2008	E	Grezia	2	OOC	Methyltrienolone, Buprenorphine
2008	G	Grezia	2	OOC	Buprenorphine Methyltrienolone,
2008	E	Grezia	2	OOC	Buprenorphine Methyltrienolone,
2008	G	Grezia	2	OOC	Buprenorphine Methyltrienolone,
2008	G	Grezia	2	OOC	Buprenorphine Methyltrienolone,
2008	G	Grezia	2	OOC	Buprenorphine Methyltrienolone,
2008	E	Grezia	2	OOC	Buprenorphine Methyltrienolone,
2008	E	Grezia	2	OOC	Buprenorphine Methyltrienolone,
2008	E	India	2	OOC	Metandienone
2008	G	Iran	1	IC	Metandienone
2008	G	Irak	4	IC	Metandienone
2008	G	Irak	4	IC	Metandienone
2008	G	Irak	4	IC	Metandienone
2008	G	Irak	4	IC	Metandienone
2008	G	Jordania	4	IC	Stanozolol
2008	E	Jordania	4	IC	Stanozolol Stanozolol, Dehydrochloromethyl- testosterone
2008	G	Kazajistan	2	IC	testosterone
2008	E	Kazajistan	2	IC	Stanozolol
2008	G	Kazajistan	8	IC	Stanozolol
2008	G	Kazajistan	2	IC	Metandienone
2008	G	Kazagistan	2	IC	Metandienone
2008	G	Saudi Arabia	2	IC	Metandienone
2008	G	Libia	4	IC	Metandienone
2008	G	Libia	4	IC	Metandienone
2008	G	Libia	4	IC	Metandienone
2008	G	Libia	4	IC	Testosterone, Epitestosterone
2008	G	Moldavia		IC	Metandienone
2008	G	Moldavia	2	IC	Stanozolol
2008	G	Moldavia	4	IC	Metandienone
2008	G	Mongolia	2	IC	Metandienone
2008	G	Holanda	4	IC	Metandienone
2008	G	Pakistan	2	IC	Metandienone Dehydrochloromethyl- testosterone
2008	E	Errusia	2	IC	

<b>2008</b>	G	Errusia	2	IC	Dehydrochloromethyl-testosterone
<b>2008</b>	E	Errusia		OOC	-
<b>2008</b>	E	Seychelles	4	IC	Metandienone
<b>2008</b>	G	Siria	4	IC	Metandienone
<b>2008</b>	E	Tailandia	2	IC	Metandienone
<b>2008</b>	E	Turkia	2	IC	Stanozolol Dehydrochloromethyl-testosterone
<b>2008</b>	E	Ukrania	2	IC	Dehydrochloromethyl-testosterone
<b>2008</b>	E	Ukrania	2	IC	Nandrolone
<b>2008</b>	G	Ukrania	4	IC	Metandienone
<b>2008</b>	E	Venezuela	4	IC	Stanozolol
<b>2008</b>	E	Venezuela	4	IC	Metandienone

G: gizonekoak; E: emakumezkoak; IC: in competition (lehiaketan); OOC: out of competition (lehiaketaz kanpo)

Laginean sartzeko betebeharra kasua bere osotasunean agertzea izan da, hau da, atletaren izena, sexua, herrialdea, lehiaketatik kanpo edo barruan harrapatu duten, zigorraren iraupena eta zein substantzia erabili duen azaltzea. Izan ere, 2008. urtetik 2003. urterako kasuetan ez da lehiaketa barru edo kanpoan izan den ez zigorraren iraupena ezta erabilitako substantzia zehazten.

### - ***Materiala***

Datuak taula batean antolatu eta horietatik emaitzak atera dira, guzti hau egiteko materialtzat *OpenDocument kalkulu orria* erabili delarik.

### - ***Prozesua***

Datuak OpenDocument kalkulu orrian izanik, datuak goiko atalean azaldutako ezaugarrien arabera antolatu dira (atletaren izena, sexua, herrialdea, lehiaketatik kanpo edo barruan harrapatu duten, zigorraren iraupena eta zein substantzia erabili duen), zehazki urteka.

Behin hori eginda aldagai bakoitza bere azpi taldeetan banadu da:


- Sexua: emakume eta gizona
- Herrialdea: herrialdearen izena
- Lehiaketan ala ez: IC (in competition) eta OOC (out of competition)
- Zigorraren iraupena: agertzen diren bi daten (noiztik noiz arte zigortu den) arteko urteen zenbatekoa zehaztea
- Substantzia: substantziak gorputzean duten eraginengandik azpitaldekatu dira, hortik 6 talde lortu direlarik:
  - Anabolizatzaileak
  - Estimulatzaileak
  - Diuretikoak
  - Dibertimenduzko drogak

- Hazkunde-hormona
- Beste batzuk

Azkenik, azpitaldeak lortu ondoren, kalkulu orriaren bidez zenbatu eta grafikatu dira, bai zenbatekotan eta bai bisualki emaitzak lortzeko.

## EMAITZAK

2008 eta 2018. urteen artean halterofilian eman diren 514 dopin kasuen artean 181 emakumezkoak (%35,2) eta 333 gizonezkoak izan dira (%64,8), (1. irudia).



1. irudia (Dopin kasuen sexuen araberako banaketa)

Lagina osatzen duten 514 atletak 78 herrialde ezberdinakoak izan dira eta hurrengo taulan herrialde bakoitzeko zenbat kasu eman diren zehazten da.

### 4. taula: herrialde bakoitzean eman diren kasu kopurua


Afganistan	6
Albania	9
Alemania	1
Algeria	1
Arabiar Emirerri Batuak	4
Argentina	8
Armenia	20
Aruba	1

<b>Azerbayan</b>	<b>31</b>
<b>Barbados</b>	<b>1</b>
<b>Barein</b>	<b>1</b>
<b>Bieloerrusia</b>	<b>18</b>
<b>Bolivia</b>	<b>1</b>
<b>Bosnia</b>	<b>3</b>
<b>Brazil</b>	<b>3</b>
<b>Bulgaria</b>	<b>31</b>
<b>Canada</b>	<b>1</b>
<b>Colombia</b>	<b>2</b>
<b>Costa Rica</b>	<b>1</b>
<b>Cuba</b>	<b>4</b>
<b>Egipto</b>	<b>8</b>
<b>El Salvador</b>	<b>1</b>
<b>Errepublika Dominikarra</b>	<b>3</b>
<b>Errumania</b>	<b>16</b>
<b>Errusia</b>	<b>28</b>
<b>Espainia</b>	<b>3</b>
<b>Estatu Batuak</b>	<b>2</b>

<b>Finlandia</b>	<b>1</b>
<b>Frantzia</b>	<b>1</b>
<b>Georgia</b>	<b>7</b>
<b>Grezia</b>	<b>14</b>
<b>Holanda</b>	<b>2</b>
<b>Hungaria</b>	<b>4</b>
<b>India</b>	<b>12</b>
<b>Ipar Korea</b>	<b>8</b>
<b>Irak</b>	<b>10</b>
<b>Iran</b>	<b>13</b>
<b>Islandia</b>	<b>1</b>
<b>Israel</b>	<b>2</b>
<b>Jordania</b>	<b>2</b>
<b>Kamerun</b>	<b>3</b>
<b>Kazajistan</b>	<b>38</b>
<b>Libia</b>	<b>6</b>
<b>Lituania</b>	<b>1</b>
<b>Malasia</b>	<b>6</b>
<b>Maroko</b>	<b>3</b>

<b>Mauricio Irlak</b>	<b>2</b>
<b>Mexico</b>	<b>6</b>
<b>Moldavia</b>	<b>17</b>
<b>Mongolia</b>	<b>5</b>
<b>Nicaragua</b>	<b>2</b>
<b>Nigeria</b>	<b>6</b>
<b>Oman</b>	<b>1</b>
<b>Pakistan</b>	<b>2</b>
<b>Palestina</b>	<b>2</b>
<b>Peru</b>	<b>2</b>
<b>Polonia</b>	<b>6</b>
<b>Puerto Rico</b>	<b>3</b>
<b>Qatar</b>	<b>2</b>
<b>Saudi Arabia</b>	<b>2</b>
<b>Serbia</b>	<b>1</b>
<b>Seychelles</b>	<b>2</b>
<b>Siria</b>	<b>7</b>
<b>Slovakia</b>	<b>3</b>
<b>Sri Lanka</b>	<b>1</b>


Tailandia	10
Taipei	5
Tajikistan	5
Tunisia	4
Turkia	10
Turkmenistan	3
Txekiar Errepublika	3
Txina	9
Ukrania	18
Uzbekistan	14
Venezuela	12
Vietnam	3
Yemen	4



2. irudia (Eman diren dopin kasuen herrialdeak)

Ikus daitekeenez, kasu gehien eman den gunea ekialdea (3. irudia) izan da, bereizgarriena Kazajistan izanik, zeinak 38 kasu izan dituen eta herrialde guztien %7-8 inguru suposatzen duen.

Dopin kasu gehien izan diren 10 herrialdeak hartzen badira, Grezia izan ezik, guztiak ekialdeko herrialdeak direla ikus daiteke, kopuruen arabera antolatzu ondorengo ordena lortu delarik (4. irudia): Kazajistanen 38 kasu (%16,5), Azerbaijanen 31 (%13,4), Bulgarian 31 (%13,4), Errusian 28 (%12,1), Armenian 20 (%8,7), Bieloerrusian 18 (%7,8), Ucranian 18 (%7,8), Moldavian 17 (%7,4), Errumanian 16 (%6,9) eta Grezian 14 (%6,1).




3. irudia (Dopin kasu gehien eman diren 10 herrialdeak)

Erabilitako substantziei dagokienez, aipatu bezala, gorputzean duten eraginen arabera 6 talde ezberdinetan banandu dira: anabolizatzaileak, estimulatzaileak, diuretikoak, dibertimenduzko drogak, hazkunde-hormona eta beste batzuk.

#### **5. taula: erabilitako substantzien sailkapena**


SUBSTANTZIA TALDEA	SUBSTANTZIAK
Anabolizatzaileak	Clenbuterol, Stanozol, Testosterona, Oxandrolona...
Estimulatzaileak	Metanfetaminak, Clomiphene...
Diuretikoak	Hydrochlorothiazide, Amirolide, Furosemide...
Dibertimenduzko drogak	Cannabis, Cocaina...
Hazkunde-hormona	Ibutamoren...
Beste batzuk	Artikuluak, Methadone, Heptaminol, Buprenorphine...



4. irudia (erabilitako substantzia taldeen kopurua)


Datuei reparatz, gehien erabili den substantzia mota anabolizatzaileak (425 kasutan, %85,5) (Stanozol, testosterona, oxandrolona...) izan dira eta ondoren estimulatzaileak (37 kasu, %7,4), diuretikoak (18 kasu, %3,6), dibertimenduzko drogak (10 kasu, %2), beste batzuk (6 kasu, %1,2) eta hazkunde hormona (kasu bat, %0,2) daude, orden horretan.

Sexuaren arabera erabilitako substantziei dagokienez, emakumeetan (5. irudia) substantzia anabolizatzaileak (%86,6) gailendu dira, ondoren diuretikoak (%5,6), estimulatzaileak (%4,5), beste batzuk (%1,7), dibertimenduzko drogak (%1,1) eta daturik gabeko kasu bat (%0,6)




5. irudia (Emakumeen kategorian erabilitako substantziak)

Beste aldetik, gizonetan (6. irudia), anabolizatzaileak (%85) gailendu dira, eta, segidan estimulatzaileak(%9), dibertimenduzko drogak (%2,4), diuretikoak (%2,4), beste batzuk (%0,9) eta hazkunde-hormona (%0,3) daude.



6. irudia (Gizonen kategorian erabilitako substantziak)

Dopin kasua non eman den aztertzerakoan (7. irudia), izan diren 526 kasuetatik 361 (%70,2) lehiaketa barruan eta 152 (%29,6) lehiaketatik kanpo harrapatu direla ikus daiteke, 526tik 1 daturik gabe dagoela kontuan hartu.




7. irudia

Lehiaketarekiko noiz harrapatu den sailkapena)


(Kasua

Azkenik, zigorrei dagokienez, hauek iraupen ezberdinekoak (8. irudia) izan dira: kasu bat (%0,2) 3 hilabeterako zigorrarekin, 5 kasu (%1) 6 hilabeterako, 6 kasu (%1,2) 9 hilabeterako, 12 kasu (%2,3) urte baterako, 334 kasu (%64,9) 2 urterako, 104 (%20,2) 4 urterako, 29 kasu (8%) 5,6) 8 urterako, 2 kasu (%0,4) 10 urterako, 14 (%2,7) betirako kasu eta 2 (%0,4) epaiketetan daude oraindik.

Ikus daitekeenez (9. irudia) ohikoenak izan diren zigorrak 2 urtekoak izan dira, izan ere, eman diren 514 kasuetatik 334k 2 urterako zigorra jaso dute eta kasu guztien arteko bataz bestekoa 2.7549 urtekoa izan da.



8. irudia (Kasuen sailkapena iraupenaren arabera)



9. irudia (Kasuen zigorren iraupena)

## EZTABIDA

Errebisio sistematiko honetan aurkitu den emaitzak esanguratsuena, bai emakume (%86,6) eta bai gizonetan (%85) gehien erabilitako (bi kasuak batuz, %85,5) substantzia taldea anabolizatzaileak izan direla da. Horrez gain, bietan hurrengo gehien erabilitako substantziak estimulatzale (%7,4) eta diuretikoak (%3,6) izan dira emakumezkoetan diuretikoak (%5,6) eta ondoren estimulatzaleak %4,5) eta gizonezkoetan estimulatzaleak (%9) eta gero diuetikoak (%2,4) izanik. Kasu gehien izandako herrialdeak Europa Ekialdeari (Kazajistan, Errusia, Bieloerrusia...) dagozkio, hauetan gizonezkoak gailendu dira, eta, gainera lehiaketan lehiaketaz kanpo baino kasu gehiago harrapatu dira.

Halterofilian substantzia anabolizatzaileak gailentzearen arrazoi nagusia kirol horretako mugimenduek eskatzen duten potentzia maximo eta abiaduragatik (Campos, Poletaev, Cuesta, Abella & Tébar, 2004; Herrera, 1992) eta teknika eta indarragatik (Cuervo & González, 1990; Herrera, 1992; Reyes-Robles, 2011) izan daiteke, izan ere, frogatu den bezala anabolizatzaile androgenikoak testosteronaren eratorri sintetikoak dira (Haupt & Rovere, 1984; Kickman & Gower, 2003; Garcia, 2002) proteinen produkzioa areagotzen dutenak. Horrek zuntzen zeharkako atalaren handitzea eragiten du (Sheffield-Moore et al, 1999; Bhagat et al, 1996), giharra handitz (Kuhn et al, 2003; Bhagat et al, 1996) eta indarra, abiadura, erresistentzia eta malgutasuna bezalako gaitasun fisikoak hobetuz (Gonzalez Aramendi, 2008).

Giza gorputza 600 mota ezberdinako esteroide anabolizatzaileak sortzeko gai da (Yesalis & Cowart, 1999), organismoan bi efektu sortuz: alde batetik anabolikoa, hau da, giharren ehunen gehitzea (Sheffield-Moore et al, 1999), eta, beste aldetik, androgenikoa, gizontze efektuak, alegia, (Stedman's Electronic Medical Dictionary, 1998) hauek emakumeetan nabarmenagoak izanik.

Esteroiden anaboliko androgenikoen ezaugarri ezberdinaren arabera banandu daitezke:

1. Hartzeko bidearen arabera:
  - a. Ahozkoak: ahotik hartutako esteroide anabolikoen bide gastrointestinaletik xurgatzen dira eta organismoan irauten duten denbora laburragatik, egunean zehar hainbat aldiz hartu behar dira. Hauek indar maximoa garatzeko erabiltzen dira eta bere toxikotasuna dela eta eragin negatiboak ditu erdi-epera (Embleton & Thorne, 2004).
  - b. Injekzio bidezkoak: urezko oinarria dute eta intramuskularki hartzen dira organismoan 1-2 aste irauten dutela. Hauek definizio fasean erabiltzen dira, toxikotasun baxua duten baina eragin negatiboak epe luzera.
  - c. Topikoak: krema, partxe eta antzerako bidez hartzen diren esteroide anabolikoen bidez xurgatzen dira, epe luzera eragin negatiboak dituztela, azalaren asaldadura, besteak beste (Sáez, 1997).
2. Organismoan eragiteko behar duen denboraren arabera:
  - a. Berehalakoak: lehiaketan baino lehenago erabiltzen diren esteroide motak dira, minutu edo ordu gutxitan efektuak sortzen dituena, eta, normalean, beste substantzia batzuk ezkutatzeko erabiltzen direnak.
  - b. Epe luzerakoak: lehiaketatik urrun erabiltzen diren esteroide motak diren esteroide motak dira, hala nola, zelulen birsorkuntza eta gihar masa

areagotzeko (Catlin eta al, 1987; Hallagan et al. 1989; Haupt & Rovere, 1984; Olsson, 1974).

3. Lortu nahi den helburuaren arabera:

- Errendimendua
- Estetika
- Osasuna: osteoporosia, erredura eta beste hainbat gaixo sendatzeko erabiltzen dira (Demling, 2005).

Hala eta guztiz ere, esteroide anaboliko androgenikoen bigarren mailako efektuak sortzen dituzte eta sexuaren arabera ezberdinak dira:

**6. taula: esteroide anaboliko androgenikoen bigarren mailako efektuak**

- <b>Gizonetan</b>	- Espermatozoideen sorkuntzaren gutxitzea - Espermatozoideen ez-ohiko morfologia - Barrabilen txikitzea
- <b>Emakumeetan</b>	- Ahotsa grabeagotzea - Klitorisaren handitzea - Bularretako masaren gutxitzea - Gizonen erako ile-galtzea

Perry et al. 1999; Kutscher et al. 2002.

Guzti hori ikusita, halterofilian mota horietako substantzien erabilpena nagusitzea espero izan dela esan beharra dago, ikusi denez, bigarren mailako efektuak sortzen dituen arren, aldaketa eta hobekuntza esanguratsuenak sortzen baititu.


Bi sexuen arteko gehiketan (37 kasu, %7,4) bigarrenik gehien erabili diren substantzia mota estimulatzaileak izan dira, emakumeetan %4,5 (hirugarren erabiliena) eta gizonetan %9a (bigarren erabiliena). Estimulatzaileek bai prestakuntza (entrenamenduetan) eta bai lehiaketa garaian, modu zuzen edo zeharkakoan kirol gaitasunak hobetu ditzakeela frogatu da. Izen ere, neurotransmisore adrenergikoen eta lasaitasunaren areagotzea eragiten dute (Strano Rossi, S. et al. 2009) eta hauek halterofilian beste abantaila bat suposatu dezakete altxaketa egiteko energia eta aldi berean lasaitasuna eman baitezakete.

Azkenik, erabilitako substantzien artean, diuretikoak izan dira bi sexuen artean hirugarrenik (guztira, 18 kasu, %3,8) gehien erabili diren substantzia, emakumeetan %5,6 eta gizonetan %2,4 izanik. Halterofilia pisuen arabera banandutako kirola izateak justifikatzen du substantzia mota hauek erabiltzea. Muñoz-Guerrillaren (2008) arabera diuretikoak estaltze-substantzia taldearen barnean sailkatzen da, zehazki, mota horretako substantziak kirolean baimenduta ez daudenak kanporatzen laguntzen dute, gernuko solutuen kontzentrazioa jaitsiz eta positiboen mugetatik urrunduz. Horrez gain, lehen aipatutako pisuen bidezko kategorietarako


abantaila bat suposatzen dute likidoen %2-4 ingururen galera bizkorra eragiten baitute eta, ondorioz, kirolariei kategoria txikiagoan lehiatzea baimentzen diente (Muñoz-Guerrilla, 2008).

Substantziak alde batera utziz eta herrialdeekin jarraituz, kasu gehien eman direnak Europa Ekialdekoak izan dira eta hori Gerra Hotzetik datorren nork gehiagokoaren ondorioa izan daiteke. Jakina denez Gerra Hotza Estatu Batu eta Sobietar Batasunaren arteko nork gehiagokoan oinarritu zen gerra izan zen. Bata bestearekiko nagusitasun hori lortzeko baliabidetzat erabili zuten kirola eta horrez gain, irabazi ahal izateko, berez, debekatuta zeuden substantziak erabiltzen hasi ziren (Hunt and Hoberman, 2012). Hori oinarritzat izanik, Europako Ekialdeko herrialde hauek beti izan dira bai halterofilian eta bai beste kirol batzuetan eman diren dopin kasuen parte. Halterofilian, zehazki, datuei erreparatuz kasu gehien eman diren 10 herrialdeetatik 7 (Armenia, Azerbayan, Bieloerrusia, Errusia, Kazajistan, Moldavia eta Ukrania) Sobietar Batasunaren parte izan ziren, beraz, tendentzia mantendu dela esan beharra dago.

Azkenik, gizonetakoan emakumezkoetan baino kasu gehiago egon dira eta horren arrazoia, azken finean, halterofilia gizonetakoak gailentzen diren kirol bat izateagatik da. 2019ko Espainiako Halterofiliako Unibertsitate Txapelketako izen emateei erreparatzen badiegu (10. irudia) gizonetakoak (68) emakumezkoak (38) baino gehiago direla ikusiko da (Federación Española de Halterofilia, 2019). Europa mailako txapelketei erreparatuz ere, gizonetakoak nagusitu dira; konkretuki 2019ko apirileko Europako Txapelketako izen emateak zenbatuz (11. irudia), 187 emakume eta 214 gizonek parte hartu zutela ("Competitions - International Weightlifting Federation", 2019) antzeman daiteke, beraz, gizonetakoengandik gailendutako kirola dela esan daiteke.



10. irudia (2019ko Espainiako Unibertsitate Txapelketako parte hartzaileak)



11. irudia (2019ko Europako Txapelketako parte hartzailak)

## **ERREBISIOAREN MUGAK**

Errebisio honetan Nazioarteko Halterofilia Federazioak harrapatutako kasuak bakarrik kontuan hartzeak muga bat suposatzen du. Izan ere, Federazio horretako kasuak bakarrik aztertzeak Estatu bakoitzak bere barnean egiten dituen frogak ez dira kontuan hartzen.

## **ONDORIOAK**

Halterofilian bai emakume eta bai gizonen aldetik gehien erabiltzen diren substantzia motak anabolizatzaileak dira eta emandako kasu gehienak gizonezkoenak izan dira. Horrez gain, harrapatutako kasu gehienak, orokorrean, Europa Ekialdean izan dira, eta zehazki, Kazajistanen hauen gehiena lehiaketa barruan izan dela.

Kasu guzti hauek ikusirik, halterofilian azken hamar urteetan eman diren kasuen kopurua oso handia dela esan beharra dago, batez ere, Estatu mailakoak kontuan izan gabe Nazioarteko Federazioak harrapatutakoak direla kontuan izanik.

Ekainaren 20ko, “Protección de la salud del deportista y lucha contra el dopaje en la actividad deportiva” 3/2013 Lege Organikoaren arabera Botere Publikoek, beraien konpetentziaren barruan, den kirol modalitatea eta hori praktikatzen duten pertsonak kontuan izanik, kiroletik etor daitezkeen osasun-narriadura, lesio eta beste ondorio negatiboak saihesteko osasun neurriak ezartzearen betebeharra dute.

Osasun neurriak Botere Publikoek kirolaren arloan ezartzen, indartzen eta aurrera eramatzen dituzten ekintzak dira, hauen helburua kirol praktika kirolarentzat ahalik eta baldintza

onenetan eta horrengandik etor daitezkeen ondorio negatiboak eman ez daitezen, batik bat, goi mailako kirolariengana (*Ley Orgánica 3/2013, de 20 de junio, de protección de la salud del deportista y lucha contra el dopaje en la actividad deportiva.*, 2013).

Hala eta guztiz ere, horrenbeste kasu eman izanak, eta, batez ere, hauek Nazioarte mailakoak eta halterofilian bakarrik izan direla kontuan hartzen bada, Botere Publikoek kirol arloan duten konpetentziak burutzen ez dituztela frogatzen du. Alde batetik, probak maiztasun handiagoarekin egin beharko lirateke; eta, beste aldetik, zigorak zorrotzagoak izan beharko lukete. Errebisioaren bidez baiezta denez, zigorren bataz besteko iraupena 2.7549 urtekoa izan da eta horrek berriz ere, erlatiboki denbora motzean, berriro lehiaketara bueltatzeko aukera ematen du, kasurik adierazgarriena Lasha Talakhadzerena izanik (junior kategorian zegoela harrapatua (2013) eta gaur egungo munduko txapelduna). Horregatik, bi esparru hauek zorroztuko balira, jendeak dopatzeko beldur gehiago izango luke eta, horrenbestez, ez ziren hainbeste kasu emango.

Hori dela eta, diru asko balio duen eta interes askoren aurka joan daitekeen arren, frogagabe burutzearen garrantzia azpimarratu beharra dago, bai Konstituzio eta beste Legeiak behin eta berriro aipatzen duen "kirolari eta herritarren osasuna" babesteko eta kirola ahal den neurrian garbiagoa bihurtzeko.

## ERREFERENTZIAK

Álvaro Carrera (2017). *La IWF suspende a Rusia, China y otros siete países por dopaje*. [online] Available at: [https://as.com/masdeporte/2017/09/30/polideportivo/1506785289\\_287479.html](https://as.com/masdeporte/2017/09/30/polideportivo/1506785289_287479.html) [Accessed 27 Apr. 2019].

Avella, R. and Medellín, J. (2018). Los esteroides anabolizantes androgénicos, riesgos y consecuencias. Revista U.D.C.A. Actualidad y divulgación científica, 15- (Supl. Olim.), 47-55. Retrieved from <https://revistas.udca.edu.co/index.php/ruadc/article/view/892>

Bhasin, S.; Storer, T.W.; Berman, N.; Callegari, C.; Clevenger, B.; Phillips, J.; Bunnell, T.J.; Tricker, R.; Shirazi, A.; Casaburi, R. 1996. *The effects of supraphysiologic doses of testosterone on muscle size and strength in normal men*. N. Engl. J. Med. 335(1):1-7.

Campos, J., Poletaev, P., Cuesta, A., Abella, C., & Tébar, J. (2004). Estudio del movimiento de arrancada en Halterofilia durante ciclos de repeticiones de alta intensidad mediante análisis cinemáticos. *Motricidad. European Journal of Human Movement*, 12, 39-45.

Cuervo, C., and González, A. (1990). *Levantamiento de pesas, deporte de fuerza*. Cuba: Pueblo y Educación.

EmásF: revista digital de educación física. (2016). *Análisis de la técnica del ejercicio clásico de arranque mediante indicadores biomecánicos del equipo de halterofilia itson* [Ebook] (pp. 17-29).

Embleton, P.H .; Thorne, G . 2004 . *Anabolic Primer*. Ed. Olympus Sport Nutricion . Barcelona . 45p .

García Maldonado, G. 2002. *Complicación psiquiátricas por el uso de esteroides anabólicos*. Rev. Med. IMSS. 40(2): 103-112.

Gonzalez Aramendi, J.M. 2008. *Uso y abuso de esteroides anabolizantes*. BIBLID. 26:185-197

Haupt, H.A; Rovere, G.D.1984. *Anabolic steroids: a review of the literature*. Am. J. Sports Med. 12:469-484

Herrera, A. (1992). *Levantamiento de pesas: deficiencias técnicas*. Cuba: CientíficoTécnica.

Historia. Retrieved from <http://www.fedehalter.org/historia.html>

History - International Weightlifting Federation. (2019). Retrieved from [https://www.iwf.net/weightlifting\\_history/](https://www.iwf.net/weightlifting_history/)

Hunt, T. and Hoberman, J. (2012). *Drug Games*. Austin, TX: University OF TEXAS Press.  
Kickman, A.T.; Gower, D.B. 2003. *Anabolic steroids in sport: biochemical, clinical and analytical perspectives*. Ann, Clin. Biochem. 40:321-356.

Kuhn, C.; Swartzwelder, S.; Winson, W. 2003. *Anabolizantes, estimulantes y calmantes en la práctica deportiva*. Barcelona. Ed. Paidotribo. 77p.

Ley Orgánica 3/2013, de 20 de junio, de protección de la salud del deportista y lucha contra el dopaje en la actividad deportiva. (2013). Boletín Oficial del Estado.

Muñoz-Guerrilla R. Farmacología de sustancias dopantes. En Consejo Superior de Deportes. Aspectos analíticos y de aseguramiento de la calidad del control de dopaje. Vol. 2. Madrid; 2008. p. 13 - 43

Reyes-Robles, M. (2011). Indicadores de evaluación en La etapa de selección para atletas de iniciación temprana en la disciplina de halterofilia en la rama femenil en la Escuela Secundaria General No. 2 "Cajeme" En Hermosillo, Sonora (tesis de maestría). Universidad Estatal de Sonora, Sonora, México.

Sanctioned Athletes / Athlete Support Personnel - International Weightlifting Federation. (2019). Retrieved from <https://www.iwf.net/anti-doping/sanctions/>

Sheffield-Moore, M.; Urban, R.J.; Wolf, S.E.; Jiang, J. Catlin, D.H.; Herndon. D.N.; Wolfe, R.R. 1999. *Short-term oxandrolone administration stimulates net muscle protein synthesis in young men*. J. Clin. Endocrin. Metab; 84(8): 2705-2711.

Strano Rossi, S.; Abate, M.G; Bragano, C.; Brotè, F. 2009. *Consumo de sustancias estimulantes y drogas de abuso en el deporte: la experiencia italiana*. Adicciones, 2009. vol. 21. núm. 3. pag. 239-242.

Yesalis, C.E.; Cowart, V.S., 1999. Esteroides, un juego peligroso. Ed. Hispano. Europea. Barcelona. 119p.